


# HARRI ZOPA

## ETA BESTE ZENBAIT ALDERANTZIZKO IPUIN

ZINESKOLA 2. ZIKLOA 2022

Ustiapen pedagogikoa

# IKASLEENDAKO HELBURUAK:

- Zinemara joatea: esperientzia kulturalaren BIZITZEA

- Zineman ikusi(ko) dituzten film laburren ULERTZEA

- Ahozko hizkuntza gaitasunen LANTZEA

# IRAKASLEARENDAKO HELBURUAK:

**Ulermena landu eta oztopo linguistikoen antizipatzea:**

- **hiztegi berri eta bereziaren ziblatzea eta aitzinetik lantzea**
- **Egitura berri eta berezien ziblatzea eta aitzinetik lantzea**
- **Ikasleak istorioaren ulermen sakonera eramatea (esplizitutik inplizitora)**

# PROIEKTUAREN AZALPENA

## Filmak ikusi aintzin:

*« Laster film labur batzuk ikustera joanen gira. Filmak euskaraz izanen dira. Hortarako eta ulermena errexteko aitzinetik, filmaren ezaugarri inportanteak aipatuko/landuko ditugu. »*

# ZINEMAREN ESPERIENTZIA

Zinema: leku berezia

Filma ikustea: Non ikusiko dugu? Nola pasatuko da?

Hiztegi eta egituren finkatzea eta erranaraztea.



ZINEGELA



PANTAILA



AULKIAK



ARGIAK



ZINEMA



BOZGORAGAILUA



IKUSLEAK



PROIEKTAGAILUA



PROIEKTATZAILEA

# FILMAK IKUSI AITZIN…

## Hipotesien aitzinatzea:

| 1. urratsa: | 2. urratsa: | 3. urratsa: |
| --- | --- | --- |
| Afixaren aztertzea | Zinemaren hontzaren ezagutzea | Trailerraren aztertzea |

# 1. URRATSA: AFIXAREN AZTERTZEA

Nor da?
Zer egiten du?
Non da?
Noiz da?






Nor da?
Zer egiten du?
Non da?
Noiz da?

Zer irudiri lotuko zeniokete titulu hau?

Eta azpititulu hau?

Nor ote da?

# 2. URRATSA: ZINEMAREN HONTZA



1
Ardiak zenbatzera



2
Janztearen abentura



3
Eskularrua



4
Harri zopa



5
Galletaren ihesaldia



# HONTZAREN AURKEZPENARI ESKER:

- Nor ote da hontz hori?
- Zendako deitzen da zinemaren hontza?
- Zer egiten du?

➢ Etxez etxe ibiltzen da, haurren ipuinak biltzen ditu eta ondotik ipuinekin film laburrak sortzen ditu.

➢ Zinemaren hontza deitzen da, istorioak film labur gisa proposatzen baititu zineman.

# Filmen arteko hontzaren komentarioak eta loturak:

**1**
**Ardiak zenbatzera**



**2**
**Janztearen abentura**



# Filmen arteko hontzaren komentarioak eta loturak:

**3**
**Eskularrua**



**4**
**Harri zopa**



**5**
**Galletaren ihesaldia**



# AUDIOEN TRANSKRIPZIOA + TESTUEN BIRMOLDAKETA

Ikus: Hontzaren audioen transkripzioa.odt

**1. saioa: ZINEMAREN HONTZA: audioen transkripzioa**
**Aurkezpena:**
« Kaixo neska mutilak! Badakizue nor naizen? Zinemaren hontza naiz.
Gauez leihoz leiho ibiltzen naiz gurasoek seme-alabei kontatzen dizkieten istorioak jasotzera eta gero zuei kontatzen dizkizuet film labur gisa.
Badakizue, mini pelikulak dira, abentura asko bizitzeko zinema emanaldi bakarrean. »

**Birmoldaketa**:
« Egun on neska mutikoak! Badakizue nor naizen? Zinemaren hontza naiz.
Gauez leihoz leiho ibiltzen naiz, aita-amek seme-alabei kontatzen dizkieten istorioen hartzera eta gero zuei kontatzen dizkizuet film labur gisa.
Badakizue mini-filmak dira, abentura anitz zinema emanaldi bakarrean. »

**Ardiak zenbatzera:**
« Azkenean mutiko hau ondo moldatu zen bere aita gabe. Eta zu? Inoiz saiatu zara ardiak zenbatzen lo geratzeko?
Uste duzu benetan agertu zirela ardiak bere gelan? Eta otsoak telefonoa hartu zuela?
Mmmmm lo hartzen dugunean oso gauza bitxiak gertatzen dira eta esnatzen garenean ere bai… »

**Birmoldaketa: Ardiak kontatzera**
« Azkenean mutiko hau ongi konpondu/arrimatu zen bere aita gabe. Eta zu? Sekulan saiatu zara ardiak kontatzen lokartzeko? Uste duzu egiazki agertu zirela ardiak bere gelan? Eta otsoak telefonoa hartu zuela?
Mmmmm lokartzen garelarik gauza oso bitxiak/arraroak gertatzen dira eta iratzartzen garelarik ere bai… »

# FILMEN ARTEKO HONTZAREN LOTUREI ESKER:

### *Ardiak zenbatzera*

**Irakasleak pausatzen ahal dituen galderak:**

- Gertatu zaizue lokartu aitzin ardiak kontatzea?
- Zendako batzuetan aita-amek aholkatzen diete haien haurrei ardiak kondatzea oheratzean?
- Zein dira hontzak aipatzen dituen pertsonaiak?
- Posible da egiazki ardiak agertzea mutikoaren lo-gelan?
- Otsoak egiazki badaki telefonoa erabiltzen?

### *Janztearen abentura*

**Irakasleak pausatzen ahalko dituen galderak:**

- Goizean bakarrik janzten badakizue?
- Jantzien izenak ezagutzen dituzue? (ezagutzen dituzten jantziak izendatu + berriak zerrendatu zuen euskalkian: ator, galtzerdi, oinetako, galtza…)
- Zuentzat janztea abentura bat da?

# FILMEN ARTEKO HONTZAREN LOTUREI ESKER:

***Eskularrua***

**Irakasleak pausatzen ahal dituen galderak:**

- Nor ote da Lili?
- Noren etxean pasatzen ditu oporrak Lilik?
- Zure ustez udako oporrak ala neguko oporrak iragaten ditu Lilik? Zendako?

***Harri zopa***

**Irakasleak pausatzen ahalko dituen galderak:**

- Gustoko duzue jatea?
- Eta lagunekin mahai inguruan jatea? Zendako?
- Marrazkia eta izenburua begiratuz, ez al dizue ezagutzen duzuen istorio bati pentsarazten?

***Galletaren ihesaldia***

**Irakasleak pausatzen ahal dituen galderak:**

- Zure ustez nor da pertsonaia nagusia?
- Izenburua ikusi eta, ez al dizue jadanik ezagutzen duzuen istorio bati pentsarazten?

Ikus: Hipotesien aztarna kolektiboa.odt

# HIPOTESIEN AZTARNA KOLEKTIBOA

| FILM LABURRAK | NOR ? | NOIZ ? | NUN ? | ZER ? | IZENBURUAREKIN LOTURAK ? |
|---|---|---|---|---|---|
| ARDIEN ZENBATZERA | | | | | |
| JANZTEAREN ABENTURA | | | | | |
| ESKULARRUA | | | | | |
| HARRI ZOPA | | | | | |
| GALLETAREN IHESALDIA | | | | | |

# 3. URRATSA: TRAILERRAREN AZTERTZEA

https://youtu.be/7XFYqYnvLPc



# OSATUZ DOAN AZTARNA KOLEKTIBOA...

| FILM LABURRAK | NOR ? | NOIZ ? | NUN ? | ZER ? | IZENBURUAREKIN LOTURAK ? |
|---|---|---|---|---|---|
| ***ARDIEN ZENBATZERA*** | Mutikoa, aita, ardiak otsoa... | Oheratzean Gauean... | Lo-gelan/ganberan | Ardiak zenbatu Otsoa lo zurrunka | Sinesmen unibertsala |
| ***JANZTEAREN ABENTURA*** | Mutikoa biluzirik | Goizean, Iratzartzean, gosaltzean... | Lo-gelan Sukaldean... | Jantzi gosaldu | Haurren egunerokoa |
| ***ESKULARRUA*** | Lili, aitatxi amatxi Urtxintxa, sagua, untxia... | Neguan Oporretan | Aitatxi eta amatxiren etxean Elurretan, kanpoan | Eskularrua etxola, ohea bilakatzen da... | Eskuzorroa (haur literatura)  |
| ***HARRI ZOPA*** | Elefantea, lepoluzea, krokodiloa, otsoa, xerria, astoa, axeria, hartza, ardia... | Gauean afaltzean | Herriko plazan | Harri zopa, eltzea, burruntzalia Lagunen arteko afaria | Harri elzekaria (haur literatura)  |
| ***GALLETAREN IHESALDIA*** | Untxi ttikia, oiloa, sagarroia, sagua, xoria, satorra, axeria, | Oheratzean Gauean Egunean zehar... | Lo-gelan oihanean | Galleta/bixkotxa ibilkaria... | Mazapanezko gizontxoa ( haur literatura)  |

NOR?

# Filmetatik ateratako irudiak (taula osatzeko)




























# NON / NOIZ?

















# ZER?
















# FILMAK IKUSI ETA GERO...

## Hipotesien egiaztatzea  eta ulermenaren sakontzea

| 4. urratsa: | 5. urratsa: |
|---|---|
| Ahozko ulermen eta ekoizpen desmartxaren segitzea (2 aukera) | *Eskularrua* filmaren sortzea<br>Stop motion teknika esperimentatuz |

# OHARRAK:

## 1. AUKERA:

- EZ GIRA BEHARTUAK FILM BAKOITZARENTZAT ULERMEN DESMARTXA SEGITZEA, INTERESATZEN ZAIGUNARENTZAT / ZAIGUNENENTZAT BAIZIK.

## 2. AUKERA:

- FILM GUZIAK EZ BADITUGU IKASLEEKIN LANTZEN, FILMEN ARTEKO PUNTU KOMUNAK AZPIMARRATZEN ETA LANTZEN AHALKO DITUGU:

➢ PERTSONAIAK

➢ HUMOREA: AMETSA ETA ERREALITATEAREN ARTEKO ALDEA ? (ENTRE VEILLE ET SOMMEIL?)

# 4. URRATSA: ULERMEN DESMARTXAREN SEGITZEA

Zer ulertu behar dugu? (NOR/K? NON? NOIZ? ZER?)

Zer laguntza dugu euskara/z ulertzeko eta adierazteko? (Tresna linguistikoak: hiztegi eta egitura bereziak)

# ULERMEN DESMARTXAREN URRATSAK:

- **1. SAIOA:** HIZTEGI ETA EGITURA BERRIAK IKASLEEI EZAGUTARAZTEA ETA ERABILARAZTEA
- **2. SAIOA:** ULERMENAREN LANTZEKO IKASLEEK 4 GALDERA NAGUSIEI ERANTZUTEA (NOR? NOIZ? NON? ZER?)
- **3. SAIOA:** IDATZIZKO AZTARNAREN ERAIKITZEA

# 1. SAIOA:

**Irakaslearen bete-beharrak:**

- Ulermena traba lezaketen hitz eta egiturak aitzinetik **identifikatzea**
- Hitz eta egitura horiek **ezagutzera ematea**:

 - Afixa batean: irudi-argazkiak proposatuz adibidez…

**Ikasleen bete-beharrak:**

- Hitz eta egituren ulertzea eta **erabiltzea**:

- Asmakizun eta jokoen bitartez (altxor joko/nor da nor?/ Kim joko….)

# 2. SAIOA:

**Irakaslearen bete-beharra:**

➢**Ulertzeko estrategiak ikasleekin esplizitatzea:**

Film /istorio baten ulertzeko zer jakin behar dugu?

**Ikasleen bete-beharrak:**

➢**4 galdera nagusiei erantzuten jakitea**

- Non gertatzen da?
- Noiz gertatzen da?
- Zer gertatzen da?
- Nor dira pertsonaiak?

**Lan modalitateak:**

Irakasleak ikasle talde ttipi batekin lan egiten du: tailer gidatu batean *(atelier dirigé)*

Irakasleak galdera argiki pausatzen du eta lan euskarriak (irudi, argazki, objetuak…) eskuztatzera ematen dizkie ikasleei (4 galdera / 4 ikasle talde)

# 3. SAIOA:

**Irakaslearen bete-beharra:**

- **Talde bakoitzarekin landutakoa gela osoarekin partekatzea**

- **Besteen iritzia eta adostasuna galdegitea, erranak justifikaraziz (pasarteak berriz ikusaraziz)**

**Ikasleen bete-beharrak:**

- **Ikasleek taldean egindakoa aurkezten dute**

- **Besteen oharrak entzuten dituzte**

**Lan modalitateak:**

Ikasleek talde handian lan egiten dute, ahozkoan.

Irakasleak behin erantzunak egiaztatu eta, **afixa handi bat osatzen du arbelean.**

Zer ulertu behar dute ikasleek?

**NOR dira pertsonaiak?**
- 
- 
- 
- 

**NON gertatzen da?**
- 
- 
- 

**FILM bakoitzean**
**Oinarrizko baliabideetatik abiatuz:**
Argazki/irudi/afixa….

**ZER gertatzen da?**
- 
- 
- 
- 

**NOIZ gertatzen da?**
- 
- 
- 


Zer ulertu behar dute ikasleek?
NOR dira pertsonaiak?
NON gertatzen da?
ZER gertatzen da?
NOIZ gertatzen da?

**Hizkuntza ulertzeko eta ekoizteko laguntzak ?**

Film edo istorio bakoitzaren **hiztegi eta egitura berezien** ezagutaraztea eta erabilaraztea
-
-

**NON pasatzen da?**

**Non kasua**

**Lo-gelan da-dira.**
**Sukaldean**
**…/du-dute.**

**FILM bakoitzean**
**Oinarrizko baliabideak**
Argazki/Irudi…

**NOR dira protagonistak?**

**Nor/Nork/Norekin kasuak**
- **…….. da / dira.**
- **………k du / dute.**
- **………ekin du/dute**
- **………ekin da/ dira.**

**ZER gertatzen da?**

- **……….. da / dira.**
- **…………du / dute.**

**NOIZ pasatzen da?**
**Noiz kasua**
**Gauean…**
**oheratzean…**

# PERTSONAIAK

**Behin baino gehiagotan agertzen diren pertsonaiak: Zertan dira berdinak? Zertan dira desberdinak?**

| PERTSONAIA KOMUNAK | ARDIAK ZENBATZERA | JANZTEAREN ABENTURA | ESKULARRUA | HARRI ZOPA | GALLETAREN IHESALDIA |
|---|---|---|---|---|---|
| ARDIA |  |  | |  | |
| OTSOA |  | | |  | |
| AXERIA | | |  | |  |
| SAGUA | | |  |  |  |
| URTXINTXA | | |  | |  |
| UNTXIA | | |  | |  |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TXORIA | | |  | |  |
| HARTZA | | |  |  | |
| MUTIKO/NESKA |  |  |  00 | | |
| AITA / AMA |  |  | | |  |
| AITATXI / AMATXI | | |   | | |

Ikus:
Pertsonaien taula.odt

**BERDINTASUNAK**

- NOLAKOAK DIRA?
- NON BIZI DIRA?
- NOREKIN BIZI DIRA?
- ERREALITATEA ALA IRUDIMENA?
- NOIZ GERTATZEN DA?





**DESBERDINTASUNAK**

- NOLAKOAK DIRA?
- NON BIZI DIRA?
- NOREKIN BIZI DIRA?
- ERREALITATEA ALA IRUDIMENA?
- NOIZ GERTATZEN DA?

# UMOREA: AMETSAREN ETA ERREALITATEAREN ARTEKO ALDEA?

| Filmak | Irudia | Pertsonaiak zer ikusten du/ zer pentsatzen du? | Guk, zer dakigu? | Irrigarri ote da? Zergatik? |
|---|---|---|---|---|
| Ardiak zenbatzera |  | | | |
| Ardiak zenbatzera |  | | | |
| Ardiak zenbatzera |  | | | |
| Janztearen abentura |  | | | |

Ikus:
Irudimena/umorea.odt

# Proposamenak:

| Filmak | Irudia | Pertsonaiak zer ikusten du/ zer pentsatzen du? | Guk, zer dakigu? | Irrigarri ote da? Zergatik? |
|---|---|---|---|---|
| Ardiak zenbatzera |  | Aitak semea lokartua dela pentsatzen du eta ahalegin handiak egiten ditu ez iratzartzeko. | Haurra ez da batere lo. | - Irri-egingarria da ikustea aitak debaldetan egiten dituen ahaleginak.<br>- Aitaren aurpegia irrigarria da.<br>- ... |
| Ardiak zenbatzera |  | Mutikoa harritua eta haserre da otsoa bere ohean lokartzen dela ikustean, gainera zurrunka ari da! | Otsoa asmatua da, ardiak bezala. | - Haurrak gauzak asmatzen ditu eta gero egiazkoak direla pentsatzen du.<br>- Otsoak gaiztoa emate n du baina siesta egiten du goxo-goxo hainbeste ardi jan ondoren eta haurrari kasu egin gabe.<br>- ... |
| Ardiak zenbatzera |  | Mutikoak ardien eta otsoaren ondotik, ihiztariak ikusten ditu bere ganbaran, ohe gainean kartetan aritzen... | Ihiztariak, otsoa eta ardiak haurraren buruan baizik ez dira. | - Haurrak gauzak asmatzen ditut eta gero egiazkoak direla pentsatzen du.<br>- Otso ihiztari gisa, ez dute biziki eraginkorrak iduri, pottoloak dira eta kartetan ari dira.<br>- ... |
| Janztearen abentura |  | Eskuak galtzak jantzi ditu eta ibiltzen da pertsona bat bezala. | Esku bat ez da bere baitarik ibiltzen. | - Haurrak eskua bere ama dela pentsatzen du.<br>-... |

# 5. URRATSA: ESKULARRUA FILMAREN SORTZEA

- FILMEKO ARGAZKIEN HAUTATZEA ETA SAILKATZEA IPUINA GURE HITZEKIN KONTATZEKO + IKASLEEN AHOTSEN GRABATZEA
- STOP MOTION: argazkiak hartzeko
- STOP MOTION: muntaketaren azalpena
- STOP MOTION: muntaketa

# FILMEKO ARGAZKIEN HAUTATZEA ETA SAILKATZEA IPUINA GURE HITZEKIN KONTATZEKO + IKASLEEN AHOTSEN GRABATZEA

ESKUZORROA



Gau ilunean, sagutxoa hotzak da eta leku bero bat bilatzen du gaua pasatzeko.



Bat-batean eskularru gorri bat topatzen du.

« mmmm eskularru barnera sartuko naiz, goxo goxo… »



Sagua eskularruan lokartzen da.



"Tepa ! Nor da hor ?

Sagutxo naiz, hoztua naiz eta zu nor zira ?

- Urtxintxa naiz, hoztua naiz, sartzen ahal naiz barnera?



- Bai sartu nire ondora.



"Tepa ! Nor da hor ?

Sagutxo eta urtxintxa gira, hoztuak gira eta zu nor zira ?

- untxia naiz, hoztua naiz, sartzen ahal naiz barnera?



- Bai sartu gure ondora.



"Tepa ! Nor da hor ?

Sagutxo, urtxintxa eta untxia gira, hoztuak gira eta zu nor zira ?

- azeria naiz, hoztua naiz, sartzen ahal naiz barnera?



- Bai sartu gure ondora.





# BIBLIOGRAFIA
# OINARRIZKO IPUINAK











# BIBLIOGRAFIA
# HAUR TTIPIEN EGUNEROKOTASUNA





























# BIBLIOGRAFIA
# FILMEN DVDA

